

8.FUNTSEZKO JARDUERAK

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Enpresa batek bere negozio-ereduak funtziona dezan. Funtsean, hauek dira kontuan hartu beharrezko funtsezko jarduerak:

- Arazoak konpontzea: bezeroen proposamenak jaso eta astero proposamen horiek aplikatzea arazoak konpondu eta proiektua aurrera eraman ahal izateko.
- Plataforma edo Sareko jarduerak: proiektua promozionatzeko sare sozialetan promozio eta jarduera ezberdinak egingo dira eta ekoizleak jakinaren gainean egoteko makinerien kokalekuak, makinek eskaintzen dutena, etab. beste zenbait gauzen artean ezarriko dira.

Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utz daitezke, eta beste batzuk ez. Gure kasuan hainbat jarduera beste enpresen menpe utziko ditugu eta horretarako hainbat hornitzaileekin harremanetan jarriko gara. Esaterako, elikagaien mantenua edo makinen mantenua kontrolatzeko eta era ordenatu batean emateko, beste enpresa batzuegandik laguntza jasoko dugu.

- Funtsezko jarduera: janari ekologikoaren eta erropa beganoaren salmenta 24 orduz.
- Beste jarduera batzuk: erosketa jarduerak, finantza jarduera, marketing jarduera, Inbertsio jarduerak...